



3. sektorea

Hirugarren Sektor Sozialaren
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco del
Tercer Sector Social

TAILERRA

ERAKUNDE GAZTEAK: EHSS-RA BERRIKI SARTU DIREN ERAKUNDEAK EZAGUTZEN

Data eta formatua:

Tailerra abenduaren 14an egingo da online, 18:00etatik 19:30era.

Planteamendua:

Behatokiaren diagnostikoen azken datuen arabera, EHSSko erakundeek kopuruak handitzen jarraitu du urtez urte. Urtero erakunde berriak sartzen dira sektorerara eta funtsezko rola dute sektorearen dinamismoan eta biziberritzean. Finkatzen joan den joera da hori eta adierazten du arreta jarri behar zaiela erakunde gazteei, haien jatorriari eta garapenari, EHSS osoa nola eratzen den ulertzeko.

EHSS gaztetu egin da, erakunde asko sortu baitira berriki. Horrek gogoeta egitera eta berritze horren izaera ulertzera eramaten gaitu. 2022ko EHSSko Liburu Zuriaren arabera, beharrezkoa da erakunde berriak ezagutzearen garrantziaren gainean gogoeta egitea, sortzeko motibazioa zein izan duten jakitea, zer jarduera egiten duten, zer beharri edo errealitatei erantzuten dioten, eta abar. Erakunde gazte horiek EHSSren egituraketan zer rol duten galdetu behar dugu, ea jarraitzeko bokaziorik baduten, beste erakunde batzuekin lankidetzan aritzeko eta sektorea ardazteko interesik baduten, ea EHSSren barruan sentitzen diren edo haien identitatea mugimendu sozialetik edo herritarretik hurbilago dagoen. Zerbaitegatik jasotzen zen Liburu Zurian erronka gisa “EHSSren parte izatearen sentimendua sustatzea, bai ibilbiderik handiena duten erakundeena, bai gazteenena, azken horiek sektorean sar daitezela lan eginez bereziki”.

Helburuak eta egitura:

EHSSren dinamismo eta biziberritze horri entzute aldera, garrantzitsua iruditzen zaigu sektoreko erakunderik gazteenen egoera jorrazteko lan-espazioa planteatu ahal izatea eta haiek parte hartzea. Helburu hauek planteatu ditugu tailerrera:

- **Haien errealitate espezifikoaren gaineko ezagutza zabaltzea.** Galdetzea ea zein izan diren ekimen gisa sortzeko haien arrazoiak, zein izan den urte hauetako haien ibilbidea, haien beharrak, zailtasunak, identitate kolektiboarekin eta sektoreko balioekin zer nolako identifikazio-maila duten.



- **Proposamenak partekatzeko eta elkar ezagutzeko dinamikak sortzeko espazio bat sustatzea** eta haien zailtasun espezifikoak jorratzeko dinamikak sortzen laguntzeko proposamenak bilatzea.
- **Sektorearen aitortzarako eta Behategira hurbiltzeko** espazioa sustatzea, errealitate berri horrekiko entzute-espazio gisa.

Hainbat elkarte gazteren arteko topaketa planteatu dugu, haien **ezaugarri komun**en gaineko elkarriketa gisa. Online topaketa-espazioa, galdera hauetatik abiatuta aurkeztu ahal izateko:

Saiorako galderak:

- **Erakunde berriak sortzeko arrazoiak.**
 - **Zer arrazoik bultzatu zaituztete proiektua sortzera?**
 - Zergatik ustu duzue ari dela erakunde berriak sortzen sektorean? Prozesu naturala da, hauteman ez diren behar berriei erantzuten diete, lotura handiagoa du antolatzeko beste modu batekin eta ekiteko nahiarekin, erakunde batzuetatik atera eta ematen ari ez ziren erantzunak ematen ahalegindu gara...?
 - Zer arlotatik zentozten? (Erakunde zibikoak, eliza, mugimendu soziala, enpresa-mundua, prestakuntzarako espazioak, ekintzailatzarako espazioak, arlo sozialeko prestakuntza...)
- **Harremanak EHSSrekin**
 - Zer harreman zenuten aldez aurretik EHSSrekin?
 - **Zer ezagutza duzue sektorearen gainean, oro har, eta, zehazki, erakundearen gainean?**
 - Sektore honen parte sentitzen zarete? Zer dinamikatan hartzen duzue parte? Zer harreman duzue beste erakunde batzuekin?
 - Zer ekarpen egin diezaiokezue zuen proposamen berriekin sektoreari eta elkarteei oro har?
 - Zein da sartu berri zareten sektorearen gainean duzuen ideia? Zer ezaugarri nagusi ditu? Zein dira defizit nagusiak?
 - Sektore sozialaren parte gisa entzunak eta identifikatuak sentitzen zarete?
- **Bilakaera erakunde gisa. Zailtasunak, erronkak eta beharrak.**
 - Nolakoa izan da zuen garapena urte hauetan zehar? Zein izan dira zuen **lorpen eta aurrerapen nagusiak**? Nora jo nahi duzue?
 - Zein izan dira zuen **zailtasun nagusiak**?
 - Erakunde gazte gisa zein da sektoreari egiten diozuen ekarpen nagusia?
 - **Zer beharko zenukete** edo zer uste duzue eman diezazueketela sektoreko edo sareko beste erakundeek?